

bidegileak



Mikela Gastesi (1929-1997)

Egilea:

ROSA MIREN PAGOLA

*G*ure arteko historiak merezi du ez ditzagula ezagutu izan ditugun pertsona zintzo, saiatu, borondate oneko eta herriaren aldeko lanetan bizitza eman duten lagunak ahantzi. Agian, horiek dira benetan historia osatu beharko luketenak, Mikela Gastesi bezalakoak, hiri baten ikastola sortzen eta indartzen bere urteak eman zituena. Euskal Herria maite zuen eta euskara bizi zuen eta, maitasun horrek eraginik, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin batera Iruñeko ikastola sortu zuen, bere gain hartuz hamar-hamabiko haur saldoa, eta eutsi egin zion, eta bere itzalpean hasi ziren beste irakasle batzuei ere lagundu zien euskararen eta euskarazko irakaskuntzan abiatzen.



Mikela Gastesi Berekotxea (1929-1997)

Larraungo haranean Gorriti

Nafarroako ipar-mendebaldean dago haran hau, Gipuzkoaren mugan, eta Iruñeko Merindade handiko udalerrria da. Larraun harana, Euskal Herriko paisaiarik atseginenetarikoa da, dena baso eta belardi, lau urtarotetan orlegi eta heze



Gorritiko inguruak

egon ohi dena. Bailarak bi erreka ditu: Araxes, txikia eta iparraldera jotzen duena eta ura, Oria ibaiaren bitartez, Bizkaiko itsasoan isurtzen duena; eta Larraun, handiagoa eta haranari izena eman diona, eta ura, Arakil ibaian isuriz eta honek Argan, Ebro ibaira eta Mediterraneora bidaltzen duena. Udalerria hamabost kontzejuz osatzen da eta denen artean mila biztanle pasatxo bide dituzte. Hamabost herrixka, zein baino zein politagoa berez, eta badutenak, naturaren edertasunaz gain, arte eta historiaurreko lekuko eta aztarna ikusgarririk.

Aralarren babespe eta inguruetan dagoenez, betitik izan da toki hori ezaguna eta estimatua euskaldunentzat, baina azken aldi honetan ezagunagoa eta, bide batez, preziatuagoa bihurtu da, A-15 autoestrata berriak gurutzatzen duenetik asko erraztu baita hara iristea eta haren edertasunez loriatzea.

Hain zuzen ere, bazen garai batean beste garraiabide bat, «Plazaola» tren, Iruñetik atera eta Larraun eta Leitzaran ibiliz, Donostiara eramaten zuena, eta alderantziz, noski. Hagitz ezaguna zen «Tren txikia», honela ere deitzen



Mikelenea Mikelaren etxea

baitzioten herrietan, eta mesedegarria ere herri horietako jendearentzat harat-honat mugitzeko Donostia eta Iruñea bitartean. Desagertua da aspalditxo, baina haren oroitzapena ez da galdu, eta hark egiten zuen bidea baliatuz ibilbide gozagarriak eratu dituzte zenbait tokitan, izena bera ere gordez.

Aipaturiko Larraungo kontzejuetako bat Gorriti da. Herri pollita da, nekazaritza eta abeltzaintza girokoa haraneko gehienak bezala. San Bartolome elizaren inguruan kokatuak daude baserriak, etxe ederrak, bere armari

eta guztiz. Ehun bat biztanle pasatxo ditu egun. Txikia izanik ere, izan zuen bere garrantzia iraganeko denboretan. Gipuzkoako muga inguruan dagoenez eta Iruñerako bidea bertatik igarotzen zenez, gaztelu bat jaso zuten nafarrek mendi kaskoan handik etor zitzazkioken erasoeri aurre egiteko eta, bide batez, bidaiariei beren buruen eta salgaien bidesariak ordainarazteko. Gaur, Santa Barbararen ermita dago hura zen tokian. Karlistadetan ere herrian dagoen koba bat babesleku bezala erabilia izan zen.

Gorritin haurtzaroko urte gozoak

Mikela Gastesi Berekoetxea Gorritin jaio zen, Mikelenea deitzen den etxean, 1929ko urriaren 27an. Aita, Miguel Gastesi Aldabalde eta ama, Juana Berekoetxea Estanga izan ziren, biak Gorritikoak eta horien aita-amak ere gorritiarrak ziren. Beraz, nafarra eta gorritiarra zen ezinbestez Mikela alderdi guztietarik. San Bartolomeren parrokian bataiatu zuten eta Fernando Berekoetxea, amaren anaia, izan zuen aitaponteko, amaponteko lanak Mikaela Aldabalde aitaren aldetiko amonak bete zituelarik. Lau anai-arreba izan ziren:



Harlanduez apaindua dago Mikelenea

Mikela bera, bigarrena; Antonia, zaharrena; horien ondoren, Joxe; eta Kalen, ahizpa gazteena.

Hazi ere, Gorritin hazi zen Mikela, baserri giro lasaian. Etxean ez zen familiaren mantenturako eta umeak aurrera ateratzeko behar diren etarik ezer falta: ardi, behi, zaldi, zerri, oilo eta abar, batetik, eta baratza, alorrak eta belagiak, bestetik. Eskola ere bazen Gorritin, ez baitzen haurren eskasiarik, eta, beraz, eskolako lantxoekin batera, jostatzeko lagunak ere bazituzten aski askatasun handiko inguru baketsu eta osasungarri hartan.

Harreman nagusiagoetarako Gorritik Tolosara jotzen zuen ia erabat errepidea egin zen arte, Tolosa hiri nagusia baitzen eta, gainera, hurbilxeago gelditzen zitzaion Iruñea baino. Ongi



San Bartolome elizan bataiatua izan zen



Mendi goian Santa Barbararen ermita dago

oroitzen da Antonia, ahizpa nagusia, nola joaten ziren Tolosara mendiz, Uitzin barna, baserriak ematen zituen mozkinak saltzera. Gurdia, zaldiak eramaten zuena, izaten zen garraioa. Nolanahi ere, Gorritik Tolosarekin betitik izan du harremana, nola bake garaietan, nola ez hain baketsuetan. Besteak beste, Gorriti eta Larraun osoan egiten den euskara eder eta aberatsak garbiro ageri ditu hango hizketaren zenbait ezaugarri, gipuzkerarenak, alegia, harreman luzerik gabe jaso ez daitezkeenak.

Esan bezala, txikia izanik ere, herriak bazuen eskola eta han ikasten zuten ume guztiek, eta denak erabat euskaldunak ziren. Hala ere, izan zituzten maisu-maistrak, euskaldunak izanik ere, ez ziren euskaltzaleak izaten. Eta kontua ez zen gerratearen ondorio hutsa, aurretik ere ez baitzitzaien umeei euskaraz batere egiten uzten,

eskolan baizik gazteleraz egiten ez zen herrian. Gerra osteko urteetan gogorrago izan zen, ordea: medaila bat lepotik kordeltxo batetik zintzilik eramanarazten zieten euskaraz egiten harrapatuz gero, eta ongi oroitzen dira Mikelaren ahizpak zigorrak ere hartzen zituztela: makilarekin behatzetan jo eta antzekoak. Hala ere, horrelako gauzaren batzuk alde batera utziz, ez dute maisu-maistren oroitzapen txarrik, irakasle bezala asko eta ongi ikasi zituelako haiekin.

Horrela bizi izan zituen Mikelak haurtzaro eta gaztaroko urte goxoak. Orduan ere herriko eta inguruko herrietako bestek erakarpen handia izaten zuten. Gorritikoak abuztuaren 24an ospatzen dira, San Bartolome, herriko Parrokiko saildu titularraren egunean. Leitza-tik txistulariak eramaten zituzten bestak girotzeko eta herriaren alaiagarri, eta taber-

netan akordeoilariak arintzen zituzten neska-mutilen oinak eta gerriak. Gorritiko bestak, beste herrietakoak bezalakoak ziren, baina bazuen San Bartolome egunak beste zerbait jendea biltzen zuena: sainduak, Gorritiko San Bartolomek hain zuzen, duen eragina haurren amets txarren kontra eta, beraz, jende artean debozio handia. Hagitz zabaldua zegoen debozio hori eta non-nahitik erakartzen zuen jendea, baita urrutitik ere inoiz, amesgaiztoak izan ohi zituzten neska-mutiko kozkorrei «ebanjelioak ateratzera» elizan San Bartolome egun arratsaldean. Neguko jai edo ospakizunak inauteak, «iyoteak» izaten ziren; eta uda hasieran, San Juan egunean, besta berezia egiten zen.

Gorrititik Iruñera

Mikela txikitatik zetorren eskola eta ikasketa zale. Ahizpak oroitzen dira eurek eskola ez zutela hain gogoko, eta ez zutela aitzakia handiren beharrik aukera bazen huts egiteko ere, baina Mikela ez zen horrelakoa, zintzo eta beti erne joaten zen eskolara, eta aski garbi omen zuen berak maistra nahi zuela izan. Adinera heldu zenean, Iruñeko alaba zen Zipri Huarte maistrak lagundu zion. Gorritin zegoen maistra eta, aurrekoak oro bezala, ostatua Mikelaren sortetxean hartzen zuen. Maistra honek lagundu zion gurasoen aurrean, Mikelak buru ona zuela eta ikasteko balio zuela azalduz gurasoei, eta dotore egingo zituela ikasketak eta, hori nahi zuenez neskak, merezi zuela



Maistra ikasketetako ikaskideekin. Lehenengo lerroan ezkerretik bosgarrena



Iruñera joateko erabiltzen zuen Plazaola trenaren oroigarria

horretan laguntzea alabari. Ziprik berak lagun-
du zion Iruñerako prestatzen ere eta hara
abiatu zen ilusioz gainezka maisutzako ikaske-
tak egitera Gorritiko neska gaztetxoa.

Iruñean, erlijiosa Teresianek ematen zituzten
maisutzako ikasketak eta beraiekin egin zuten
Mikelak karrera. Aldaketa handixkoa gertatuko
zitzaion Gorritiko baserri girotik Nafarroako
hiriburura, baina ez hainbeste, aurretik ere ez
zutelako hain urruti eta orduko Iruñea ere ez
zelako egungo hiri handia. Bizi ere familiaren
ezagunak zirenen etxe batean, San Anton

kalean, bizi izan zen ikasketak amaitu zituen
arte. Nolanahi ere, oporretan baizik ez zen
itzultzen Gorritira, beste arrazoien artean ez
zelako bidaia hainbatean egiteko modu ego-
kirik ere. Plazaola trenak Uitziraino eramaten
zuen eta Uitzitik Gorritira oinez egin behar
zen eta sei kilometro pasa daude; normalean
aita joaten zitzaion bila Uitziko geltokira eta
harekin batera egiten zuen oinezko bidea,
arratsaldeko seietarako etxean izaten zirelarik.
Ikasketak arazorik gabe burutu zituen eta
1952an atera zuen maistra titulua.



Uztegin eman zituen lehenengo eskolak

Uztegin, lehenengo eskolak

Karrera bukatu ondoren, Araizko haranean dagoen Uztegin egon zen maistra, Larraungo haranaren ondoan eta, beraz, Gorrititik hagitz hurbil gelditzen den herrixkan. Gorritiko maistra plaza ere atera zen, eta Mikela zen bakar-bakarra karrera zuen herriko alaba, baina herriko agintariek Uitziko bati eman zioten. Sekulako atsekabea izan zuen Mikelak, eta berak adinakoa bere familiak, eta ez txikia herrian bertan plaza Mikelari emango ziotela nahi eta uste zutenek. Erabaki hark banatu egin omen zuen neurri batean herria. Dena den, Uztegin bi urte eman zituen eta oso gustura egon zen eta herrikoak gusturago. Lehenengo urtean hango etxe batetan bizi izan zen eta bigarreanean, berriz, egunero

Gorritira itzultzen zen oinez, aldapa gogorra igo behar zuelarik, eta goizean goiz, buelta, goitik beherantz errazago. Goizeko zazpitan ateratzen zen Gorrititik eta zortzietarako eskolan izaten zen, eta arratsalde zortzietarako egoten zen etxean. Edonork uste izango luke ez zela eroso izan bere bizitza profesionaleko aurreneko esperientzia, baina, gaztetasunak ematen duen adore eta ilusioak eraginda edo, kontua da oroitzapen atsegina gorde zuela bizitza osoan Uztegin eginiko egonaldiarena. Eta maisutza ikasketak egitera bultzatu zuen barneko deia tinkotu baizik ez zitzaion egin, eta sekula ez zitzaion damutuko karrera egin eta ekin zion bideari ere ez zion inoiz muzinik egingo. 1959an ezkondu egin zen Txomin Urrutia Arraiagorekin. Iruñean ezarri zuten egoitza eta bi seme-alaba izan zituzten, Maiaia eta Txomin.



Ezkontza egunekoa

Aurretiko ekintzak eta saioak

Iruñeak beti izan du euskararen sentipen bizia. Bera izan zen lehena euskal aldizkari bat sortzen XIX. mendean: euskarari eta Euskal Herriaren izateari suharki eusten zien *Revista éuskara de Navarra*, alegia. Zenbait izen ospetsu zeuden haren atzetik: Juan Iturralde y Suit, Nikasio Landa, Estanislao Aranzadi Izkue, Arturo Campión eta beste batzuk. Hauek fundatu zuten «Asociación Éuskara de Navarra» eta honek sortu zuen aipaturiko aldizkaria, zeinen lehen zenbakia 1878ko otsailean agertu zen. Eta euskararen sentipen hori zorroztu eta hedatu baizik ez zen egin XX.

mendearen lehen hamarkadetan, euskalduntasunaren eta aberriaren kontzientzia areagotu ahala.

Euskeraren Adiskideak Elkarteak sortze beretik (1925) bazkide kopuru ugaria izan zuen eta, kideen artean, baziren aunitz Iruñeko gizartean itzal handikoak zirenak. Elkartearen helburuek haren izenari erantzuten zioten, euskararen aldeko ekintzak eratu nahi zituelako. Batez ere euskara galtzeko arriskuan aurki zitekeen alderdietan, haurrei euskaraz irakurtzen eta idazten erakusteko eta euskararen erabilera, nola ahoz hala idatziz, sustatzeko ekintzak bultzatuz. Nafarroako euskaldun eta euskaltzaleek erantzun ezin hobea eman zioten Euskeraren Adiskideak Elkarteari.



Mikela gaztetako urteetan


Eta hain zuzen ere, Euskeraren Adiskideak Elkartek sortu zuen lehen euskal eskola 1931. urtean Iruñean, eta *Escuela Vasca* izenez izan zen ezagutua. Gerra Zibila hasi arte iraun zuen eta hainbat haur eta gaztetxo pasatu zen haren ikasgeletatik bost urte horietan. Ez zuen egungo ikastoletako hizkuntzaren erabilera berdina jarraitzen, euskararen irakas-

kuntzarekin batera gaiak gaztelaniaz ematen baitziren. Hala ere, orduko lekukoek Euskal Eskola hartatik euskaraz mintzatzen atera zirela aitortzen zuten.

Gerra osteko negu luzean, hirurogeiko hamar-kadaren hasieran, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban ikastolak, artean lege-onarpenik gabe, indartzen ari ziren garaian, Iruñean ere izan zen ikastola pribatu bat sortzeko mugimendua, baimen ofizial guztiekin sortu nahi izan zena. Pauso finkoak eta argiak eman ziren eta dena egoki antolatua zegoen: tokia prestatua eta beharrezko altzari eta materialez hornitua, irakaslea bilatua, araudiak eta irakaskuntzako programak eratuak, iragarkiak egunkarrietan ipiniak eta Iruñeko alkatearen eta Lehen Irakaskuntzako inspektorearen onesprenak, ahozkoak behinik behin, bazituzten. Nuestra Señora de Irantzu izena izanen zuen. Hasteko zegoenean, 1963ko udazkena aitzina zihoalarik, jasotako onesprenak aski zirela ustez, azken momentuan ukatu egin zieten baimen ofiziala eta ikastola hark ez zuen inoiz irekitzerik lortu. Agian, baimen ofizialik eskatu ez balitz, ikastola eragozpenik gabe jarriko zen martxan eta urtebete geroago onartu egingo zen ziurrenez. Edonola ere, dena galdu zen: egin zituzten lanak, hartu zuten zama, ipini zuten adorea, eralgi zituzten diruak. Baina, beharbada, ez zen dena guztiz galdu, ikastolaren egarria ez baitzen ase, gehitu baizik, eta erakutsi ere zerbait erakutsiko zuen eskarmentu hark.

Iruñako Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteak eta Iruñeko lehenengo ikastola

Euskaltzale talde batek Iruñako Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteak sortu zuen 1960ko otsailean, haren antolaketa-araudia Gobernu Zibilak onartu zuelarik. Horretarako, Elkar-



Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteak sortu zuen Iruñeko lehenengo ikastola

tearen helburuen buruan gizartearen eragintza eta herriaren ekonomiaren sustapena ezarri ziren eta, gero, eragozpen izan zitezkeenak ekidin eta deigarri gerta zitezkeenak, berriz, helburu nagusien artean kukutu. Aitzin-solasean, 1803ko elkarte bat aipatzen da Iruñearen garapen ekonomiko, teknologiko, zientifiko eta kulturalak bilatzen zituen. Beraz, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak ere helburuen artean honako hauek ere aipatzen zituen: «Gure lege-nortasunaren iraupena. Gure herrialdearen jakintza-hedapena. Benafarroarekin adiskidetasuna. Europa-barnean bat egitea». Eta horiek bideratzeko hainbat sail sortuko ziren. Euskal Herriko zientzia, kultura, folklorea eta beste zenbait arloren azterketak egiteko, «Euskal Ikasgaien Akademia»; «Napar ikasgaien akademia»k bere gain zituen etnologiaz, euskal hizkuntzaz, foru zuzenbideaz eta abarrez ikastaldiak eratzea, txistu eta euskal dantzen akademia sortzea eta, besteak beste, «aur-eskola ereduko, euskera eta lehen-maillako ikaskizunak aur bazkideei erakusteko» eskola sortzea ere bai.

Noiz gertatu zen, bada, Iruñeko lehenengo ikastolaren sorketa? Aurreko saioak aurrera egiterik lortu ez eta bi urte geroago, 1965eko urriaren amaiera aldera hasia zen Iruñako Euskalerrriaren Adiskideak Elkartearen eskutik. Iruñako Ikastola izena hartu zuen. Elkartearen araudiak haurrentzat eskola bat irekitzea batzen zuen eta, behin elkarteak sendotuz gero,

asmo hori aurrera eramatea erabaki zen. Elkartek ikastola sortzeko zuen ahalbideari eutsi zion, kontuan zuelarik, noski, zergatik porrot egin zuen Iruñean aurretik egin zen saioak. Ekimen honetan Mikelaren eragina handia izanen zen, maistra eta euskaldun iaioa baitzen eta pertsonarik hautena ere hori martxan jartzeko. Mikelak Gipuzkoako euskal eskoletan ordurako egiten zen hezkuntza lana ongi ezagutu nahi izan zuen eta han aritu zen bere burua prestatzen alde aurretik. Esanguratsua gertatzen da nola atera zitzaion «nire» hitza ikastolaz mintzatzean, hasi eta hilabete baten buruan egin zioten elkarrizketan. Ez zen pertsona harroa, apala baizik, eta gutxiago inoren merituz janztekoa. Hori atera bazitzaion, horretan buru-bihotz jardun zelako baizik ez zen izan. Begira zer zioen elkarrizketa horretan: «Horrelako zerbait Iruñean egitea izan nuen amets eta hona nola ari naizen egiten. Zoragarria da niretzat hauek euskaraz mintzatuko direla pentsatzea, eta hauen umeak ere beste hainbeste egingen dutela. Baina haur gehiago behar ditut. Hamaika baizik ez ditut, eta nire ilusioa hogeita hamarrekin aritzea litzateke».

Beraz, Iruñako Euskalerrriaren Adiskideak Elkartek baimenak lortu zituen eta ikastolarako, Iruñeko alde zaharrean, Pozoblanco kaleko 6 zenbakian zuen egoitza hartu zen eta lehen andereñoa Mikela Gastesi izan zen. Ez ziren asko izan aurreneko ikasle taldea osatu zutenak: euskaltzale batzuen seme-alabak, horien artean Mikela beraren alaba. Baina ez

da harritzekoa, gogoan izango baitzuten Iruñean hain berriki gertaturiko esperientzia. Eta hasiera xumea izan bazuen ere, ez zen, haatik, garrantzi txikiko ekintza gertatuko: lehenbiziko harria izan zelako, batetik, eta urrats berria eman zutelako, bestetik, eta, horrenbestez, beste askorentzat eredu eta eragin-garri bikain bihurtuko zelako uste baino arinago. Horra nola agertzen zuen Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteko lehendakariak



Pozoblanco kaleko etxe honetan hasi zen Iruñeko lehenengo ikastola Mikelarekin

poza eta harrotasuna bazkideei bidali zien gutunean, bide batez umeak ikastola berrira bidaltzera zirikatu nahirik: «Gure ilusio handia, zure ilusioa, gure ilusio guzietarik beharbada garrantzitsuena azkenean ere gauzatu egin da. Euskalerrriaren Adiskideek badugu Ikastola [...]. Euskalerrriaren Adiskideen egoitzan, zeure etxean, hasia da Ikastola bat martxan. Ez da euskara erakusteko, lehenengo aritmetika edo lehenengo geografia euskaraz irakas-

teko baizik». Eta irakaslearen aurkezpena ere egiten zuen: «Ikasketak Mikela Gastesik eman-go ditu. Gure laguntzaile honek hiru kualitate ditu (eginkizun horretarako): maistra tituluduna, euskalduna jaiotzez eta ikastoletan praktikatua. Esperimentu gisa hasiko den lehen ikasturte honetara pedagogia-metodo modernoak dakartza, beste "ikastola" batzuetan emaitza bikainez frogatuak izan direnak». Horra, beraz, Iruñeko lehen ikastolaren hasiera.



Ikastolako neska baten lehen jaunartzean

Ikastolako zuzendari

ertakari deigarria izan zen Iruñean hurrei irakaskuntza euskara hutsean emango zien eskola berriaren irekiera. Bere xumetasunean ikusmira handia sortu zuen iruindarren artean. Gora-xeago esan bezala, 1965eko abenduaren 8an, artean eskolak hasi berriak zirelarik, Mikela Gastesi andereoña *El Pensamiento Navarro* egunkarian elkarrizketatu zuten, eta kazetariak «Urgen “Ikastolas” en Iruñña» izenburuaz artikulua idatzi zuen eta «Zeru txiki bat!» azpi-izenburuak egoki azaltzen du ikastolan ikusi zuen giroa.

Iritzi on hori aunitz hedatu zen ikasturtean zehar eta kurtso amaieran egin zen

jaialdiak ere lagundu zuen hura indartzen. Haurrak euskaraz egiten ikasi egiten zutela ikusi zuten iruindarrek eta zegokien mailako ikasketak ere euskaraz egiten zituztela. Hain izan zuen oihartzun ona ikastolak, ezen hurrengo ikasturteko matrikulak aparrak bezala egin baitzuen gora. Eta Mikelak eskatzen zituen



San Jose enparantzako etxe honetan izan zuen ikastolak bigarren egoitza

30ak, ikasturte berrian 45 izatera iritsi ziren eta Pozoblanco kaleko egoitza txikiegia egin zen han denak sartu ahal izateko. Lekuz aldatu egin behar izan zuen ikastolak, eta katedralaren alboko San Jose enparantzan, 3 zenbakiko etxean, 2. solairuan, kokatu zen, Karmengo lekaimetzi alokaturiko pisu batean. Bestalde, taldeak bi izanik Mikelaren iloba bat hartu zuten irakasle-laguntzaile bezala. Horrela hasten da, beraz, 1966-67 ikasturtean, Mikela zuzendari ofizialagoa izaten, aurretik ere berak eramaten baitzuen ikastola. Eta, horrez gain, lankide berriaren gidari eta formatzaile ere izan zen.

Ondorengo urteetan ikasleen kopurua eten-gabe gehituz eta handituz joan zen. Hurrengo

urtean 125 izan ziren matrikulatuak, eta berriro toki arazoa sortu zen. Egoera ekonomikoa ez zen onegia eta ikasleen kuotetatik jasotzen zenak ez zituen kostu guztiak estaltzen, eta Euskalerrriaren Adiskideak Elkar-teak ez zuen egoitza bat erosi edo berria egiteko errekurtsorik, horrelako pentsaerarik burura etorri bazitzairen ere. Gauzak horrela, San Jose enparantzako tokia utzi gabe, beste bat alokatuz, kasu honetan bebarru bat Donibane auzoko Baiona etorbidearen 42an, eta irakasle berri bat hartuz eman zitzaion hasiera 1967-68 ikasturteari. Bestalde, ikasturte horretan eratu zen gurasoen lehenengo batzordea, 6 kidez osaturik, Euskalerrriaren



Ikastolako umeen lehen jaunartze egunean katedraleko atarian

Adiskideak Elkartearen baitan, ikastola bera aurkitzen zen bezala.

Hurrengo bi ikasturteetako bilakabidea benetan harrigarria izan zen: matrikulazioari dagokionez, 1968-69an, 205 ikasle matrikulatu ziren, eta irakasleak zazpi andereño ziren, gehi Mikela, zuzendaria. Hurrengoan 348ra igo zen matrikula, eta hamaika andereño Mikelaz gain. Ikasleria gehitu ahala arazoak biderkatu egiten ziren urtez urte. Lehenbizikoa, ohikoa: toki falta. Ikasleak hiru leku ezberdinetan banatu behar izan ziren adinaren arabera: lehen aipaturiko Baiona etorbideko bebarruaz aparte, Donibane auzo bereko Irrintzi dorrean, azken solairuan, goi-mailako ikasleak kokatu ziren, eta han eskolak ematen Mikela bera eta beste andereño bat egoten ziren. Hirugarren egoitza, aldiz, Mutiloan zegoen, Lakartxela kalean. Toki-beharrarekin eta ikasleen kopuruarekin loturik zeuden beste arazo guztiak, denak tokiarena bezain arduragarriak: diru kontuak geroago eta larriagoak; ikasleak mailaz igo ahala, administrazioak ezarririkoa betebeharrak zorrotzagoak ziren oro har, eta irakasle tituludunen baldintza bereziki urtetik urtera estuagoa bihurtzen zen; eta, noski, ikastetxe berri baten eguneroko martxak sorzitzakeen beste aunitz. Edonola ere, legeen aldetikoa izan zen okerreana, ez baitzen lortu goi-maila emateko baimenik. Eragozpen hori gainditzeko ikasle nagusien bi gela Huarte eskolaren babespean ipini ziren.

Bat bitan banatu zen

Esan bezala, ikastola arin handitu eta indartu zen, eta horren ondorioz, nolabait esateko, ikastolaren titularitatea eta menpekotasuna jarri zen auzitan. Hezkuntzaren ikuspegi berri bat ezarri nahi zen, eta hortik, 1969-70 ikasturtean, eztabaida gogorak eta arazo larriak jarraitu ziren. Ideologia kontuak ziren barnean, Euskal Herriko gizartean bertan pil-pil zeudenak bestalde. Ikastolaren kontrola eskuratu nahi zen, nagusiki hezkuntza-eredu berri bat ezartzeko asmoz. Euskalerrriaren Adiskideak Elkartearen eta gurasoen batzordearen arteko gatazka zen iduriz, baina sartu nahi zen eredu berrirako irakasleak elementu garrantzitsuak zirenez, horiek irabazi beharra zegoen aurrena. Ez zuen Mikelak urte goxoa izan huraxe. Arazo materialek ez baina pertsonen artekoek mintzen dituzte bihotzak. Bere besoetan eraman zuen ikastola zirimola bortitzak lehertu beharrean ikusi zuen, artean bost urte bete gabe zituelarik. Andereñoak ere batera eta bestera sakanatuak eta kezka larrietan ikusi zituen. Baina batez ere bera, ikastolaren zuzendaria zenez, harrapatu zuen zurrunbiloak erdi-erdian, eta horrek neke eta samin handienak jasanarazi zizkion urte horretan, eta ondorengoetan ere bai hein batean. Hagitz mingarria izan zitzaion, zinez, guzti hura, baina, une berean eta gerora ikusita, noski, hain denbora laburrean Ikastolak izan zuen hazkunde eta arrakasta handien adierazgarri hoberena zen gertatzen ari zena.

Gaitzak ere batzuetan bata bestearen atzetik etortzen baitira, unerik larrienean Hezkuntza Ministerioaren erantzuna jaso zen Ikastolari legeztapen ofiziala ukatuz, eta berehala itxi egin behar zuela ere aginduz. 1970eko otsaila zen. Nola edo hala, ikasturtea bere tenorean amaitzea lortu zen, baina, tarte horretan, Iruñako Ikastola, zenbait dokumentutan Uxue Ikastola ere deitzen hasia zena, zatitu egin zen. Hainbeste eta hain larriak ziren arazoak eta hain kontrajarriak bateko eta besteko irizpide eta jarrerak, ezen ez baitzen ahal egoerari fundamentuz aurre egiterik. Hurrengo hilabetean, gurasoen batzordearekin ados zeuden gurasoen ume eta andereñoek alde egitea erabaki zuten, eta apirilaren hasieratik, Zizurko Verbo Divino ikastetxean amaitu zuten ikasturtea, San Fermin Ikastola berria sortuz.



Ikastolako besta-egun batean

Iruñako Ikastolatik Paz de Ciganda Ikastolara

Iruñako Ikastolan gelditu zirenek bere egoitzan amaitu zuten ikasturtea han jarraitu zuten andereñoekin. Baina, aitzinera begira, hasiera berri bat balitz bezala hartu behar izan ziren gauzak. Ez zen erraza izan, batez ere Mikelarentzat, baina ez zen kikildu egoera berriaren aurrean; gainera, gogorra izanik ere, pasatako urtea baino eraman-garriagoa gertatuko zitzaion. Ikastolak Euskalerrriaren Adiskideak Elkartearen titulartatepean jarraitu zuen, eta zehatzago ezarri zituen Ikastolaren gain zituen eskubide eta egitekoak. Lotura hori ez zen eragozpen izan, alderantziz baizik, ikastolaren garapena Elkartearen eskutik errazago eramateko eta haren burujabetza bera ere zuzenago bideratu ahal izateko. Ikastolari izen berria jarri zitzaion, Ikastola Paz de Ciganda, eta aurretik zituen tokiak utziz, Taxonar udalerriko Mutiloa Beheran «Terciarios Capuchinos» izeneko erlijiosoek zuten Luis Amigó ikastetxean jarri zen ikastola. Legeen aldetiko egoera arin normaldu zen, ikasturtea hasi eta berehala iritsi baitzen onarpen ofiziala. «Paz de Ciganda» izena, berriz, Iruñeko emakume euskaltzale eta Euskeraren Adiskideak Elkartearen babespean 1931n Iruñean euskal eskola sortzen hainbeste lagundu zuen andrearen omenez ezarri zitzaion ikastolari.



Paz de Ziganda ikastolak Beloso Goikoan bi urtez izan zuen egoitza

Ikastola haziz joan zen berriro, beti Mikelaren zuzendaritzapean. Taxonarreko eskolan hartzen zuten tokia txiki gelditu zen eta bi ikasturteren buruan, berriro Iruñean, Beloso Goikoan, San Juan de Dios osasun etxeak irakaskuntzarako prestatuak zituen ikasgeletara aldatu zen Ikastola, han hasi zuelarik 1972-73 ikasturtea. Baina ikastolaren handitu beharra ez zen baretzen eta toki beharra urtetik urtera gorriagoa bihurtzen zen. Berriro bi urteren buruan Atarrabiara aldatu zen Aita Dominikoen han zuten egoitza batera. Noizbait ere! Hortxe aurkitu zuen Mikelak lasaitasuna, horrelakorik lor badaiteke sekula eskola baten zuzendaritzan. Leku aldatetaren arazoa erabakia gelditu zen aldi baterako. Beste bi urte eman zituen eskolak ematen eta ikastola zuzentzen, eta 1977an utzi egin behar izan zuen, familia Donostiara aldatu baitzen bizitzera.

Azkenik, eta ikastolaren gaineko begiradarekin amaitzeko, 1977an ikastolako ikasleen gurasoek Pedro de Axular kooperatiba sortu zuten eta Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteak 1981ean Paz de Ciganda Ikastolaren titulartatea kooperatibari transferitu zion. Eta ez dago zehaztasun gehiagotan luzatu beharrik. Ikastolak bere bideari jarraitu zion eta Mikelak, ziurrenez, ez zuen ezagutu 1995. urtean Paz de Ciganda Ikastolak inauguratu zuen 25.000 metro karratuko eraikuntza berria. Baina egun milatik gora ikasle dituen ikastola moderno eta bikainak ez du ahantziko, bere baitako historian eta bere begiramen eta esker onean, nork hasi zuen hamaika haurtxorekin eta nork eutsi zion urte gogorretan gaur hain ikusgarria den ikastola.



Paz de Zigandako ikasle taldea andereñoekin 1973an

Maistra eredugarria- -Ikasketa metodoak

Iruñako Ikastolaren eta honen jarraipen gertatu zen Paz de Ciganda Ikastolaren bilakabideak zedarritu zituen Mikelaren lanbide-ildo nagusiak. Haren zuzendari izatez gain, haurren irakasle izan zen hasiera-hasieratik, eta irakasle berriak sartu ahala hauei ere laguntzen zien beharrik izaten bazuten. Beraz, ez litzateke behar bezala azalduko Mikelaren izatea, haren nortasunaren maistra alderdia aipatuko ez balitz.

Garai hartan, ez zen hain erraz har zitekeen erabakia bat-batean eskolak euskaraz ematen hastekoa. Iruñean ez



Euskalduntasunean murgiltzen zituen neska-mutilak

zen falta euskaltzalerik, hala ere kemen pixka bat beharrezkoa zen erabaki hori hartzeko, bide berria baitzen eta ez hain ongi ikusia ere gizartearen zati batean. Mikelak, ordea, garbi zuen nondik nora jo behar zuen aurrerantzean eta adore faltarik ere ez zuen izan. Aipaturiko elkarrizketan antzeman daiteke haren erabakiaren irmotasuna: «Maistra naiz, eta maistra naizenez haurren zerbitzura behartua nago. Baina nafarra ere banaizenez, euskalduna den guztia bizi dut eta, oroz gain, euskarak beherantz egiteak nahigabetzen nau. Beraz, neurekiko esan nuen: zergatik ez dut neure burua ikastolara emango? Esan eta



Beti adi egoten zen hurrekin

egin». Eta berria zenez hasi behar zuen esperientzia: «Udan Donostiako zenbait ikastoletan izan naiz. Arretaz erreparatu dut nola egiten duten lan, zein trebezia eta metodo darabiltzaten andereñoek». Izan ere, ikusi eta ikasi zituen metodoak egokitu zituen berak ere ikastola berrian. Orduantxe ezagutu zuen aurrez aurre Elbira Zipitria ere, hainbeste miresten zuen eta hain maite izango zuen pertsona, andereño, euskaltzale eta emakume abertzalea. Haren metodologia baliabideak, iduriz sinpleak, baina muinez modernoak, aberatsak eta oparoak, Mikelak ere probetxu

handiz baliatu zituen bere irakasle lanean eta irakasle berriak ere bide beretik abiatzen zituen. Elbira Zipitriaren barneko su berak eragiten zion Mikelari ere euskararen eta Euskal Herriaren alde.

Bazuen Mikelak hurrekin moldatzeko eskua: berehala atxikitzen zuen haurren maitasuna, ezagutzen ez zuten hizkuntzan mintzatzen bazitzairen ere beti. Harrigarria zen nola jartzten zituen hilabete gutxiren buruan euskaraz mintzatzen, eta haren eskuetatik igarotako hurrek ez zuten arazorik izaten eskolan ikasitako gaiari buruzko edozein galdera eus-



Ez ziren aunitz hasieran zeuden euskal ikas-liburuak



karaz erantzuteko, esaniko elkarrizketan Mikelak berak zioen bezala: «Euskara erabat ezezaguna dutenei hasieran kostatzen zaie sartzea, baina berehala jartzen dira hizketara. Haurrak entzuten duen guztia bereganatzen du. Eta hemen euskara baizik entzuten ez duenez...».

Irakats material askorik ez zen garai hartan euskaraz, baina zeuden apurrekin eta gerra aurreko zenbaitekin —*Umearen laguna*, *Txomin-ikasle*, *Martin Txilibitu*, *Xabierto*— eta gutxi gehiago ziren erabiltzeko zeudenak, hala ere, Mikelak bazekien liburu apur haiei probetxu handia ateratzen, umeak bikain prestatzen baitzituen. Bestalde, formazio erlijiosoari garrantzia handia ematen zion eta ez zen faltako eguneroko *Edesti Deunaren* irakurketa eta azalpena.

Euskaltzale eta abertzale

Ez dago esan beharrik ere Mikelaren nortasunaren ezaugarririk nabarienetakoa bere euskal izatearena zela. Euskalduna zen, noski, muinetaraino, eta izate horrek eragiten zion denerako, eta hori bizitasunez ageri zitzairen harekin ari zirenei. Euskalduntasun horrek jatorria Gorritin zuen. Mikelak ez zuen bereizten Gorriti eta Gorritiko sortetxearekin zuen lokarri haustezina eta Euskal Herriarekin zuena: biak gauza bera ziren.

Eta euskaltzaletasun hori bere inguruan zebiltzanengan hedatzen zuen. Haur eta ikasleengan, lehenbizi, erraz lortzen zuelako haurren



Amarekin, bi ahizpekin eta anaiarekin

barnean euskal sentipen bizia piztea eta Euskal Herria maitatzera eramatea; baina irakasleengan ere berdin, benetan miresgarri gertatzen zelako zein berez eta garden ateratzen zitzaizkion gure herriaren maitasuna eta mina. Indar hori zuen bizitzako poz eta atsekabeen eragile nagusi. Eta azkenik, aipatu baizik ez zein pertsona lasaia eta atsegina zen nahiz berarekin egoteko nahiz elkarrekin lanean jarduteko, eta edozein egoeratan laguntzeko beti prest.

Pertsona erlijiosoa zen eta oinarrizko balio eta irizpideak ongi finkatuak zituen.




Ikastolako autobus baten ondoan

Azken urteak

Esan bezala, Donostian bizi izan ziren bospasei urtez, eta gero Hondarrribian hil arte. Euskal Herriaren aldeko lanak eta emaitzak ongi beateak zituen hezkuntzaren eta hizkuntzaren aldetik, baina politikari ere ez zion ukorik egin laguntza eskatu zitzaionean. Eusko Alderdi Jeltzaleko kide zen eta haren Aberri Batzarrean ahalduen ere izan zen zenbait urtez. Pozik joaten ziren elkarrekin batzarretara lagun mina izan zuen Donapaleuko Elena Gerezagaga, eta biak. Merezi du Mikelarekin batera, bidenabar bada

ere, Elena Gerezagaren izena ekartzea, ikastolaren ia hasieratik Mikelarekin batera eta gero ere irakasle izan baitzen erretiratu zen arte, eta Elenak ere ez baitzion inori aurrenik emango herri honen maitasunik bizien eta eraginkorrean.

Mikelaren azken bi urteak ilunagoak izan ziren. Eritasun gaiztoak eraman zuen 1997ko irailaren 10ean. Gorritin izan zen ehortzia, hango parrokian egin zen hil-elizkizun ederraren ondoren. Familia eta senitarteko guziez gain, lagun eta euskaltzale aunitz bildu zen Mikelari zion estima handia eta esker ona agertzeko eta azken agurra emateko.



Andereño eta maisuek Mikelari eskainitakoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maiaia Urrutiari
- Antonia eta Kalen Gastesiri
- *Gran enciclopedia Navarrari*. Caja de Ahorros de Navarra, 1990

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Rosa Miren Pagola

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2459-0 (Lan osoarena)
978-84-457-2600-6

L.G.: BI - 2586-07

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística